

Maurice Culot jaunaren *mugako hiriak*

Institut Français d'Architecture erakundeak 1998. urtean Parisko Norma Editions argitaletxearen bidez plazaratu zuen *Hendaia, Irun, Hondarribia. Mugako hiriak* zeritzan liburua, argazki eta planoz bikain horniturik, Maurice Culot arkitektoaren zuzendaritzapean burutua.

Lan ederra benetan antzinarik gure egunotara arte hiri hauetan jarraitu den hirigintzaz eta etxegintzaz. Liburu mardula da, 29x23cm. neurrikoa, 399 orrialdez osatzen dena eta aurkibidez ongi jantzia. Aurrerantzean beharrezkoa izango da lan hori ezagutzea hiri hontako historia aztertuko dutenentzat.

Liburu hontako izenburuak frantsesez, gazteleraz eta euskaraz egonarren, orokorki frantsesez idatzi da, nahiz eta kapituluak hirurotan eduki eta bertan beste hizkuntzon zertzelada batzuk agertu.

Nabarmena da jakitea, arkitektura aldetik, lehen hobeto gordetzen zela egualdi-giroak eskatzen duenaren arabera etxeak jatorrizko esperientziak ekarri zigun ohituraren jarraipena. Tamalgarria iruditzen zait azken urteotan era horiek ez zainetzea. Lekukoak hor daude edonorren begien aurrean, argazkiotan azaltzen denaren arabera. Ikus daiteke arkitekto bakoitzak bere erara jarrai-

tu duela, bertako jatorrizkoari jaramonik egin gabe.

Lehenagokoek ohiturazko itxuren ereduak kontutan hartzen zituzten etxea eraikitzean, egiazko premiaz gainera, herriaren jatorrizko nortasuna gorde nahirik nonbait, aldi berean kokapena eta bertako klimari zegokion mailan eraikuntzak eginez. Hemengo giroa euritsua izaki eta teilatuen hegalak luzatuz egiten zituzten etxeen hormak ahalik ongien babesteko. Baina eurite gehienak mendebaldetik haizez datozenez, alde hortara atzekaldea emanaz, horman leiho guti eta txikiak jarritz eta, haize euritsuegatik, hegalik gabe hormaz teilatua gaindituz. Bestalde, jatorrizko estiloen estetikaz, zer esanik ere ez, ohiturazko horien itxuretara hurbiltzea gordetzen zen.

XIX. mendearen azkenaldera modan jarri ziren ohizko euskal arkitekturaz txaletak eraikitzea, "neo-vasco" bezala, eta XX. mendearen erdialde-ara arte jarraitu zuen. Estilo horien eredugarritzat aipa nezazke, beste zenbait lanen artean, honako hauek: H.G. O'Shea, *La maison basque. Notes et impressions* (Pau, 1887), Baionako Lizeoan irakasle zelarik hainbeste lan burutu zituen Louis Colas zenaren *L'Habitation Basque* (Paris, 1926), J. Soupre, *Maisons du Pays Basque* eta *Villas Basques*



Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burdindegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

Jon Alzaga

- Urdai azpikoak
- Hestekiak
- Gaztak
- Foies
- Edariak

San Pedro kalea 45 Tel. 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA

hiru liburukitan osatua (Paris, 1929), L. Urabayen, *La casa Navarra* (Madrid, 1929), A. Baeschlin, *Arquitectura del caserío vasco* (Barcelona, 1930). Zeintzutan biltzen diren, katalogatze gisa, horietako etxe eredugarri batzuren argazki eta planoak.

Gure herriko arkitekturaz, mendien babesik gabe zabaltzen den auzoko Lapurdin baditugu nahi adina adibide, baina batere Bizkaiko Txorierrri eta Durangaldean. Zuberoan eta Erronkarin ordea, Pirinioetako elurte giroa dutenez, harbelez estalitako teilatu gailur zuriak dituzte. Horrek erakusten digu etxea non kokatu behardenaren arabera, bertako edo bertarako itxurarik aukerakoena hautatzea beharrezkoa dela.

Marco Vitrubio eta Andrea Palladio arkitektoek antzina eskaini zituzten eredu gomendagarriak, klima kontutan harturik, eta lehengoek gogoko ez ezik praktikotasunez beharrezko ikusten zuten eraikuntzaz era hortara jokatu beharra. Izan ere, non aurkitu genitzazke ikasbide hoberik? Lehengoek haien bideetan oinarriturik ibili ziren. Eta oraingoek, zergatik ez jarraitu antzinako haien gomendioak?

Guri dagokigun klima kontutan harturik, bereziki mendi edo lautaretan, bakarrean eraikitzen diren etxeetan, ahal delarik behintzat, beharrezkoa zaigu etxaurrea hego-ekialdera begira jartzea eta

hegalak aski luze direla, mendebaldera ezik. Bestela itokinak maiz eta etxea laster ustelduz hondatzen bai da. Hiri barnean nekezagoa da jokabide hori gorde ahal izatea, baina hegal luzeak jarri ezinik ez da.

Nire ustez, Arkitektoen Kolegioek ikasleekin Frantziako Saboia aldera txangoak antolatu beharko lituzkete. Hango jarraipen eredugarriak zertan oinarritzen diren jakiteko, bai estetikaz eta baitere egualdien giroaz jokera nagusiaz behar bezala baliatzeko.

Saboian aurkitzen den arkitektura edonor txunditzekoa da. Eta bertan egin nituen galderetatik dakidanez, Udal bakoitzean ba omen da batzorde bat inguru bereko artezale, etnologo eta historia-gilek osatua, eraikuntzen proiektuak aztertuz gomendioak ematen dituztenak. Hemen ere hola-ko zerbaiten beharra dugu.

Baina, berriz itzuli nadin Maurice Culot arkitekto jaunaren liburu ederrera. Airetik hartutako argazki eta antzinako zein orainagoko planoez gainera, Dominique Delaunay-ren argazkietan, etxegin-tzak era orokorrean ikus ditzazkegu. Horrela, argi nabari dira aspalditik egin diren eraikuntzak. Lehen zatian orokorki datoz Bidasoa inguru guziaren bi alderdien berriak, batez ere mugak tarte direla, itsas bazterrak, zubi internazionalak, Behobia eta Biriatu aldea barne direla.

EROSLE

CHARTER SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA

DISCOTECA
TRUCK
HONDARRIBIA
Foru Kalea

Pub
Kaizar
Almirante Alonso Kalea, 12


Gero, hiriz hiri sartzen delarik, 153-234 orrialdeak eskaintzen ditu Hendai hiri-koak zein Hondarraizu plaia ingurukoak.

Irunen, hor-hemenka, gerra zibilaren aurreko kaleak eta geroztik eraikiak datoz lehen zatian. Baina 259-299 orrialdeak eskaintzen ditu era zuzenean adieraziak.

Era berean, Hondarribiari eskainiak datoz 301-342 orrialdeak, lehengo eta oraingo eraikuntzat horniturik, eta tes-roan xehetasun asko adieraziz. Eraikuntzarik garrantzitsuenak noizkoak ditugun ere jartzen du, baina heuretari-ko batzuk suntsitu ziren eta horregatik dugu hain zuzen liburuko lekukotasunaren edukia hain baliagarria.

Azkenik, eraikuntzetan zer ikusia izan zuten arkitekto eta hiriotako agintariak nortzuk izan ziren, beraien bizitza eta nortasun maila eskainiz.

Eskergarria da Maurice Culot arkitekto jaunak burutu ahal izan duen lan hau, Merezi du ezagutzea eta salgai aurkitzen ez duenak, edo erosterik nahi ez duenak, Hondarribiko Udal Liburutegian ikus eta irakurri ezinik ez du.



JUAN SAN MARTIN

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 ■ 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 ■ 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 ■ 943 64 27 77

ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA

Aerobic / fitness, Musculación, Masajes
Alquiler y almacén de piraguas
Gimnasia Mantenimiento
Gimnasia Terapéutica
Sauna gratuita

HERRIKO GIMNASIORIK EDERRENA!!!

Hondarribia Arraun Elkartea ■ Tel. 943 64 01 61 ■ 20280 HONDARRIBIA